

# Gizarte langintzaren jardute profesionala gaur egun

**Kontxesi Berrio-Otxoa**  
**Ainhoa Berasaluze**

UPV/EHU-ko Gizarte Langintza Eskola

Artikulu honetan biltzen dira gizarte langintzaren profesioaren eta gizarte langileen egoeraz burututako ikerlanak agerian utzitakoak. Ikerlan hau Euskadiko Autonomia Erkidegoko gizarte langileen elkargo profesionalek sustatu dute eta berriki argitaratu da Espainiako elkargoen Consejo Generalaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Langintza Eskolaren laguntzari esker ere.

## 1. Lehen ikerketa Euskadiko errealitate profesional hontaz

Gizarte Langintzaren bilakaera nolakoa izan den gure ingurunean jakin nahian begirada analitikoarekin erreparatzen duen hark argi antzemango du azken hamarkadetan errotze eta sendotze prozesu bat bizi izan duela. Sendotze hori posible izan bada hiru eremutan garatuz joan delako izan da. Alde batetik, Ongizate Estatuaren garapenak eraginda, gizarte langile andanaren kontratazioak –bereziki gizarte zerbitzuen sistema publikoan– profesioa hedatzea ekarri du. Gainera, Gizarte Langintzarako formazioa unibertsitate mailakoa bihurtzeari esker, disziplina hau garatze bidean jartzeaz batera, profesioari errekonozimendu soziala eta prestigio gehiago eman dio. Azkenik, hirurogeigarren hamarkadan Asistente Sozialen Elkarteetatik eta Estatuko Federazioetik, eta azken hamarkadetan Elkargo Profesionalatik eta Kontseilu Orokorretik egindako lan mar-dulak ere zeresan handia izan du lanbidearen indartzean.

Hala eta guztiz ere, aurreratze nabarmena eman bada ere, urria da errealitate profesional honen berri jakiteko egin den ikertze ahalegina<sup>1</sup>. Ikertu dena lanbide honetatik jorratzen diren errealitate eta problematika sozialetaz ikertu da, alde batera utziaz profesioaren eta bere profesionalen beharren azterlana.

Hain justu aipatutako ikerketa hutsune honi heltzea izan zen EAEko gizarte langileen elkargo profesionalen beharrezkotzat jo zutena 2005ean. Elkargoei premiazkoa baitzaie errealitate profesionalaren berri

<sup>1</sup> Gizarte Langintzaren profesioari buruz egindako azterlanen berri izateko kontsulta daiteke: BERSALUZE, Ainhoa eta BERRIO-OTXOA, Kontxesi (2008): "Gizarte Langintzaren lanbideari buruzko ikerketen errebisioa", in *Uztaro*, 59, 25-39.

izatea, ondoren, profesionalen beharrak ezagututa, beraiek asebetetzeko planak eta neurriak bideratu ahal izateko. Xede horrekin EAEko gizarte langintza-errealitate profesionalari buruzko lehen ikerketa bultzatu zuten, hain zuzen ere, ikerketaren egileok zenbait emaitza esanguratsu agertuz artikulu hone-tan aurkezten duguna.

## 2. Gizarte langileei esker egindako azterlan kuantitatiboa

Ikerketa honen helburu tematikoa lanbidea bera izan da, eta gizarte langileen beharrak eta balorazioak agerian jartzearekin batera, kolektibo profesiona-la deskribatzea eta ezaugarritzea izan da gure asmoa. Profesioarekin izandako harremanetik eta gaiari buruzko literatura esanguratsuenaren errebi-siotik sortutako hipotesiak kontrastatu ditugu iker-lan honetan. Profesioaren egungo egoeraren erra-diografia lezkotzea osatu nahian, ugariak izan dira beraietaz informazioa bildu ditugun dimentsioak eta alderdiak (funtzioak, esku-hartze mailak, asebetetz profesionala, arrisku egoerak, besteak beste).

Ikerketa egiteko jarraitu dugun ikusmolde metodolo-gikoa kuantitatiboa izan da, aztergaiaren izaerak eta ikerketaren helburuak horrela eskatzen baitzuten. Sei dimentsio nagusitan bilduta (soziodemografi-koa, formaziozkoa, profesionala, lan arriskuak, sos-lai kolegiala eta ikasketen balorazioa) berrogeita hamasei aldagai aztertu dira. Beraietaz informazioa biltzeko baliatu dugun teknika galdesorta izan da, EAEn kolegiatutako gizarte langile guztiei<sup>2</sup> helarazi zitzaiena, hain zuzen ere. Laginaren tamainari dago-kionez, 370 gizarte langileren erantzunak lortu dira, eta beraiei esker, estatistikoki esanguratsuak<sup>3</sup> dira ikerlan honen emaitzak.

Azken txostenean bildu dira, Gustavo Garcíaren pro-ologoarekin batera, ikerketak jarraitutako bidea eta sortutako emaitzak. *Gizarte Langintzaren jardute profesionala gaur egun*<sup>4</sup> izenburuarekin txosten hau berriki argitaratu dute EAEko Elkargo Profesionalek, Espainiako Consejo Generalaren eta UPV/EHUko Gizarte Langintza Eskolaren laguntzarekin.

<sup>2</sup> EAEn kolegiatutako gizarte langileak 1349 dira, era honetara banatuta Lurralde historikoka: 375 Araban, 421 Bizkaian eta 553 Gipuzkoan.

<sup>3</sup> Laginketa ausazko laginketa sinpletzat hartuz, %95eko konfi-dantza mailarekin %±4,3koa da errore margina lagin osoarentzat.

<sup>4</sup> BERSALUZE, Ainhoa eta BERRIO-OTXOA, Kontxesi (2008). Argitalpen lebiduna.

## 3. Hainbat emaitza esanguratsu

Landu ditugun aldagaien zein beraietako hainbaten arteko elkarreraginen azterketak emaitza iradokitzaileak agertu dizkigu; batzuk abiapuntu hipotesien norabide berean, beste batzuk ordea aurreikusiga-beko ildoan, aurrerantzean egin daitezkeen ikerkete-tarako hortzmuga berriak sortzeko modua eginaz. Etorkizuneko ekinbideak irudikatzen lagun dezakete-lakoan, bildutako zenbait datu agertuko ditugu emaitza hauen berri emateko, beraiek sortarazitako balorazioekin batera, eta guztia lau dimentsio nagu-sitan egituratuta:

- Soziodemografikoa
- Formaziozkoa
- Laboral-profesionala
- Kolegiala

### 3.1. Soslai soziodemografikoa: emakume gazteak eta helduak

Sexua aldagaiari dagokionez bildu den informazioak adierazten du gehiengo zabal-zabala emakumeak direla: %95 dira emakumezkoak eta %5 gizonezko-ak. Desoreka hori bat dator guztiz lanbidearen erre-alitatearekin, bai ikuspuntu historikotik begiratuta, bai eta gaur egun ere.

1. Taula. Lagineko gizarte langileen sailkapena sexuaren arabera

	SEXUA	
	Maiztasuna	Ehunekoak
Emakumezkoak	350	94,6
Gizonezkoak	20	5,4
Guztira	370	100,0

Iturria: Egileek sortua.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan Juan Estruch eta Antonio M. Güell-ek (1976: 59) adierazitakoa: “rara vez cabe encontrar un ejemplo tan paradigmático de monopolio femenino”, gaur egun ere, berrogei urte pasa eta gero, horrela dela esan daiteke. Sexuagati-ko desoreka (garai hartan uneko sozializazio proze-suetan kokatua ulergarria zena) gaur egun paradoxi-koa da. Hala da; gaur egun deigarria da egiaztatzea, gizartean sexuaren araberako lanaren zatiketa gain-ditzean izan diren aurrerapenak gorabehera, hizketa-gai dugun lanbidearen kasuan sexuaren araberako banaketa duela lau hamarkadako ehunekoan egoera berdintsuan dagoela. Onarpen handiena jaso duen azalpenetako bat da egoera hori eta generoaren sozializazioaren eragina lotzen dituen, hau da, emakumeek tradizioz etxeko esparruan garatu dituzten eginkizun eta gaitasunekin lotura handiena duten lanbideak aukeratzen dituztela. Dena dela, profesio-nal taldearen ezaugarri definitzailea delaz ohartzen gara, eta azterketa espezifiko eskatuko luke, gene-roaren ikuspuntutik eginga, batetik, lanbidea gizonez-

koentzat ere erakargarri bihurtuko luketen elementuak identifikatzeko, eta bestetik, agerian uzteko kolektibo profesionalaren ezaugarri honek zernolako zailtasunak dakartzan praktika profesionallean eta funtzioen gauzatzean (Fombuena, 2007: 87).

Adinaren arabera banaketari erreparatu, beronek etorkizun profesional oparoa erakusten du giza baliabideei dagokienez. Hori horrela dela esan genezake kolektibo profesionallean ugari direlako (%45) profesional gazteak -35 urtez azpikoak-, eta helduagoak diren profesionalen multzoak ere -36 urte eta 50 bitartekoak- pisu beretsua dutelako (%43); azken hauek esperientzia profesional pilatua dute eta oraindik jardute profesionallean aritzeko urte asko aurretik.

### 3.2 Formazioaren esparrua: errebisio eta eraldaketa momentuan

Formazioaren dimentsioaren azterlanak erakusten digu jasotako formazioaz batez beste balorazio ona egiten dutela, hala ere, ez dira baztergarriak formazioaren alderdi batzuei eman dizkieten hala-holako balorazioak eta balorazio negatiboak. Azken gai horri dagokionez, elkarrizketatutako pertsonak adierazi dute ahultasunak daudela eduki teorikoetan eta praktikoetan, espezializazioan eta baita egungo gizarteko eta lanbideko errealitatera egokitze arloan. Antzerako balorazioa egiten dute Joseph Manuel Barberok, Montserrat Feuk eta Alain Vilbrodek egindako ikerketan parte hartutako gizarte langileek, zera adierazten dutenean: "...buena parte de los trabajadores sociales entrevistados consideran que es débil la formación que han recibido. Esa debilidad se debe a que se trata bien de una formación demasiado básica, de carácter introductorio, bien de una formación academicista o abstracta, sin referentes en el ejercicio profesional" (2007: 121).

Gizarte Langintzan diplomatura izateaz gain, EAEko profesionalen %16k beste diplomatura edo lizentziatura<sup>5</sup> bat egina du eta, Gizarte Langintzaren diplomatura egin ondoren formazio unibertsitario egin dutenetatik, %40k graduondoko ikasketak egin ditu. Diplomadunek oro har batez beste urtean formazio ikastaro bat edo bi egiten dituzte. Adierazle hauek erakusten badute ere etengabeko formazio dinamika kontuan hartzeko modukoa dela, hirugarren zikloko ikasketak edota tesi doktoralak salbuespen hutsak dira; galdetutako pertsonen %2 soilik dira egin dituztenak. Edozelan ere, ikerketan parte hartu duten tituludun gehienak prest daude gradu mailako titulazioa eskuratzeko egin beharreko egokitzapen formatiboa egiteko.

<sup>5</sup> Kataluinako Gizarte Langintzan diplomatutako Elkargo Ofizialak egindako ikerketaren arabera kolegiatutako pertsonen %11k goi mailako unibertsitate titulua zuen eta %12,5 zen erdi mailako titulazio unibertsitarioa zuena.

Formazioaren harira, unibertsitateko titulazioak birdefinitzeko egungo kontestuan aukerak sortu daitezke profesionalak adierazten dituzten formaziozko hutsune eta ahuleziak osatzeko. Hori posible izan liteke beti ere kolektibo profesionalaren beraren eskaerak kontuan hartzen badira Gizarte Langintzako Gradu mailako tituluaren eraketa berrian.

### 2. Taula. Gizarte langintzako gradu mailarako egokitzapena egiteko prestutasuna

	Maiztasuna	Ehunekoak
Bai	261	70,5
Ez	43	11,6
Ed/Ee	66	17,8
Guztira	370	100

Iturria: Egileek sortua.

Egungo formaziozko hutsuneak gainditzeko beste bide bat izan daitezke etorkizuneko Master eta Doktorego ikasketak, prestakuntza profesional espezifiko zuzenduak zein ikerketara zuzenduak.

### 3.3. Soslai laboral-profesionala: hala eta guztiz ere, lanbideko asebetetzea

Dimentsio laboral-profesionala aztertu ondoren dakigu diplomadunen %80k esperientzia duela gizarte langile gisa, eta horien artean %90 baino gehiagok lanbide horretan dihardu gaur egun. Gizarte langileak enplegatuta dauden lan entitateei dagokionez, administrazio publikoan egiten du lan %67k (udaletan nagusiki), %23k hirugarren sektorean eta enpresetan gainerako %10ak. Hala, gizarte langintzan diharduten profesional gehienek gizarte zerbitzuen sistemaren esparruan egiten dute lan, oinarriko gizarte zerbitzuetan (%54) eta gizarte zerbitzu espezializatuetan (%45) banatuta. Babes sozialerako gainerako sistemetan enplegatuta dauden gizarte langileak gutxi dira. Horrela izanik, etorkizunean lan egin beharko litzateke handitzeko profesionalen presentzia beste sistemetan, bereziki hezkuntza eta osasun sistemetan.

Beraiekin esku-hartze profesionala egiten den biztanleria sektore garrantzitsuenen arabera aztertuz, hauek dira gizarte langile kopururik handienari lana ematen dioten biztanleria sektoreak, hurrenkera honetan: biztanleria oro har (%50), pertsona nagusien sektorea (%16), ezgaitasunak eta gaixotasun kronikoak dituztenena (%13), eta haurrak eta familia (%9). Banaketa hau bat dator gizarte zerbitzuen sistemaren garapenaren oinarrian dauden gizarte politikekin. Politika horiek gizarte-arreta unibertsala bihurtzera eta biztanleria sektore zaurgarriei arreta espezializatu ematera bideratu dute beraien baliabide ekonomikoen zati handia. Etorkizunari begira, etorkinen beharrei eta mendekotasunezko egoerei erantzuna ematen jakitea da erronka.

Profesioaren Kode Deontologikoan jasotako funtzioak kontuan hartuz, gizarte langileei galdetu zaie zeintzuk diren gauzatzen dituzten eginkizunak eta hauek dira lortu ditugun erantzunak:

**3. Taula. Gauzatutako eginkizuna**


	Gauzatzen dituzten gizarte langileen %
Informazioa	95,6
Laguntza	87,8
Bitartekotza	67,6
Plangintza	67,2
Ebaluazioa	67,2
Prebentzioa	60,5
Sustapena	56,1
Gainbegiraketa	42,2
Ikerketa	26,7
Zuzendaritza	20,6
Irakaskuntza	17,6

Iturria: Egileek sortua.

Esku-hartze sozialaren maileri erreparatuz, ia gizarte langile guztiek banakako-familiako mailan esku hartzen dute, eta haietako askok horretan soilik jarduten dute. Horren aurreran, profesionalen erdiak baino gutxiagok garatzen ditu talde maila eta komunitate maila. Gaur egun, jardute profesionalaren errealitatearen inguruko ikerlanek edo hurbilketek egiaztatu dituzten ebidentzietako bat da Gizarte langileek gehien garatzen duten maila banakako-familiako esku-hartze maila dela.


Fenomeno hori azaltzen duten arrazoitzat jotzen dira ondorengoak: gizarte zerbitzuen antolaketa eredu, beste disziplina batzuetako profesionalen komunitate- eta talde-mailak garatu izana, denbora falta eta lanbidean erosotzea. Pentsatzen dugu lanbide honen garapena laguntzeko beharrezkoa dela esku-hartze maila ezberdinei eskainitako dedikazioaren eta bere ondorioen azterlan kritikoa gitea.

**1. grafikoa. Banakako-familiako esku-hartze mailari eskainitako denbora (%)**




Iturria: Egileek sortua.

**2. grafikoa. Taldeko esku-hartze mailari eskainitako denbora (%)**



Iturria: Egileek sortua.

3. grafikoa. Komunitateko esku-hartze mailari eskaintako denbora (%)



Iturria: Egileek sortua.

Esku-hartze modalitateari dagokionez, gizarte langile gehienek (%91) zuzeneko esku-hartzea zein zeharkakoa garatzen dituzte; dena den, modalitate bakoitzari eskaintzen dieten denbora nabarmen aldatzen da; hartara, laneko denboraren %56 bideratzen da zuzeneko esku-hartzera eta %43 zeharkako esku-hartzea egitera.

4. Taula. Zeharkako esku-hartzeari eskaintako denbora

	Maiztasuna	Ehunekoak
Inoiz edo oso gutxitan	70	23,6
Noiz behinka	147	49,6
Hainbatetan	51	17,2
Normaltasunez	11	3,7
Ed/Ee	17	5,7
Guztira	296	100

Iturria: Egileek sortua.

Zuzeneko esku-hartzea egiteko, aurretik zein ondoren, zeharkako eginkizunak ere landu behar direla jakinda, zeharkako esku-hartzeari eskaintako denbora zuzeneko eginkizunei eskaintakoak baino handiagoa beharko luke. Ikuspuntu honetatik, harritzekoa da bildutako datuek kontrako egoera erakustea. Datuok pentsarazten dute jardun profesional zorrotza eta eraginkorra izateko beharko liritekeen prestaketa eta sistematizazio lanik gabe egiten dela zuzeneko esku-hartzea. Agian kontzientzia hartzea falta da, profesionalak beraiek, zein erakunde kontratatzaileek; batzuek zein besteek konturatzea eskuhartze sozialerako zein beharrezkoa den aurrez denbora eskaintzea esku-hartzearen prestaketa-lanei, horiek gabe jardute profesionalak hausnartugabeako aktibismoa izateko arriskua baitauka.

Aztertutako beste aldagai bat izan da jardute profesionalari erantsitako laneko arriskuena. Gizarte langile gehienek (%70) arrisku egoeraren bat bizi izan duten arren beraien ibilbide profesionalan, bizi izandako egoera kopurua ikusita –batez beste 4 egoera bizitza laboral guztian zehar–, ondorioztatu daiteke arrisku egoerak ez direla eguneroko lanbideko errealitatea. Arrisku egoera mota ohikoena pertsona erabiltzaileei loturikoa da (%92); eta arrisku egoeraren batean murgilduta ikusi diren profesionalen portzentaje handiena administrazio publikoan lana egiten dutenen artean aurkitzen da (%80), zehazki, oinarrizko gizarte zerbitzuetan dihardutenen artean (%82). Datu hauek kontuan hartuz, aztertu beharrekoa litzateke laguntza harremanetan oinarritutako esku-hartze profesionalak (esku-hartze teknokratagoak izan beharrean) zein neurritan lagun dezaketen erabiltzaileen oldarkortasun adierazpenei aurre hartzen.

Gizarte langileen %45ak lanbideak gaur egun duen egoera hala-holakoa dela uste du, eta arazo nagusitzat jotzen dituzte lan-gainkarga, baliabideen urritasuna, lanbidearen aintzatespen falta eta birziklatzeko aukera urriak. Hala eta guztiz ere, harrigarria bada ere, adierazi duten asebetetze profesionalaren maila altua da; %77k adierazi du pozik edo oso pozik dagoela profesionalki. Datu hau ez dator bat estresari eta zeregin burokratikoari lotutako lanbidearen irudi sozialarekin. Profesionalak beraiek balorazio positiboagoa egiten dute herritarrek kanpotik egiten dutena baino (Barbero, Feu eta Vilbrod, 2007: 34); horrela izateak barne indargune oso garrantzitsua uzten du agerian, gizarte langintzan diharduten pertsonen konpromisoarekin eta inplikazioarekin harremanetan egon daitekeena.

5. Taula. Lanbideko asebetetzea gizarte langile gisa

	Maiztasuna	Ehuneko
Oso asebeteta	45	15,2
Asebeteta	183	61,8
Ez oso asebeteta	63	21,3
Batere asebeteta	5	1,7
Guztira	296	100,0

Iturria: Egileek sortua.

### 3.4 Elkargoaren dimentsioa: elkarri laguntzeko esparrua

Kolegiatze maila handituz joan da eta kolegiatze bolumen handiena laurogeiko hamarkadatik aurrera gertatu zen, hain zuzen ere dagoeneko elkargo-erakunde formak juridikoa Elkargo Profesionala bihurtu zenean, eta ordutik aurrera gorunzko joerarekin jarraitu du. Consejo Generalak bildutako datuen arabera, Estatu Espainiarrean 42.000 gizarte langile inguru daude eta hauetatik 25.000 (%60) elkargokide dira dauden 36 Elkargo Profesionala batean. Kolegiatzearen inguruan, Juan José Llovet eta Ricardo Usietok diozkue: “La colegiación se señala como obligatoria en la ley de creación de los Colegios y Consejos profesionales, no obstante, la tradición de adscripción voluntaria, cierta resistencia a los signos externos del corporativismo y sobre todo, la baja proporción de ejercicio libre frente al alto número de puestos ocupados en las Administraciones públicas, para cuyo acceso el requisito es simplemente estar en posesión del título, hacen que el número de profesionales colegiados se estime solamente en el 50% del total de titulados” (1990: 165).

Gizarte langileek kolegiatzeko aukeratutako Elkargo Profesionala beraien bizilekua den Lurralde Historikoaren arabera da eta baita, neurri txikiagoan, lana egiten dutenaren arabera. Kolegiatutako gizarte langileen erdiek titulua lortzen duten urte berean egiten dute, eta lautik hiruk bi urte<sup>6</sup> pasa baino lehenago kolegiatzen dira. Kolegiatutako erdia ikasketak bukatzarekin batera kolegiatzea, ahaztu gabe ere diplomatutako %20 esperientzia profesionala eduki ez arren kolegiatuta dagoela, adierazten du kolegiatzea estrategia bat dela lana bilatzeko prozesuan. Kolegiatutako pertsonen %20 honek interes eta behar espezifikoak ditu, eta lan mundura sartzeko beraien prozesuetan laguntza emateko moduak asmatu beharko litzukete Elkargo Profesionalak.

<sup>6</sup> Juan José Llovet eta Ricardo Usietok madrilgo profesionali buruz egindako ikerketan aldagai honen azterketa planteatzen da ere. Egileek zera diote: “aproximadamente la mitad declara haberse colegiado dentro de los seis meses después de titularse” (1990: 169).

Profesionalek hainbatetan planteatzen duten eskaeretakoa bat da kolegiatutako pertsonen elkargo profesionalen jardunean parte hartzea. Zehazki, kolektiboaren pasibitatea da agerian jartzen dena eta inplikazio gehiago eskatzen da. Kontuan hartuz azterlan honetan agertu diren ahuleziak (formazioan eta jardun profesionalen) zein indarguneak (asebetetasun profesionala), elkargo profesionalak, aldi berean antolamendu formalaz gain hurbiltasuna ere eskaintzen duten guneak izanik, aukera ematen dute gizarte langileen elkarlanerako eta elkarlaguntzarako espazioak bihurtzeko, hartara erreibindikazio eta behar profesionalen alde lan egiteko. Norabide bereko adierazpena da Lucia Peña eta Nieves Aranguren egiten dutena: “Pensamos que la Colegiación, más allá de una mera pertenencia a una estructura y el pago a una cuota, defiende una serie de aspectos que redundan directamente en el bienestar de todo un colectivo, tanto a nivel profesional como personal, así como en aquel ámbito que atiende y concretado en las personas a las que pretendemos ayudar” (2007:15).

### 4. Azken ohar gisa

Ikerlan honetan aztertutako dimentsioak eta aldagaiak jardun profesionalaren egungo egoera zertzelatzen laguntzen dute. Era berean, ikerketa honetan lortutako emaitzak azken urteetan gaiaren inguruan egindako beste ikerketenekin kontrastatuz ikusi dugu antzekotasun esanguratsuak ageri direla. Profesioari buruzko behar eta balorazioekin harremana duten alderdietan sakontzeko azterlan kualitatibo baten beharra badago ere, jardun profesionalaren erradiografia edo panoramika orokor bat eskuratu dugula esan genezake.

Sarrerako atalean aurkezten genuen bezala, gizarte langintzaren eremuan egin ohi diren ikerketetan bezala, ikerketa honetan ere lanaren azken helburua ez da izan soilik ikergaiari buruzko azterlana egitea. Ikerketa aplikatua izan nahi du honek, alegia, eza-gutza berriak eskuratzeko pausua eman eta geroko ekinbideak orientatzen eta planifikatzen lagundu nahi duen ikerlana. Hortaz, ikerketa honetatik erotritako erronkari bidea emateko unea da hemendik aurrerakoa. Ikerlan hau gauzatzeko ireki den elkarlan bideari jarraipena emanez, garaia da, lortutako emaitzek agerian utzitakotik abiatuta, gizarte langintzaren esparrua ongarrizteko eremu kolegiatetik eta formazioaren eremutik planak lantzea. Besteak beste, honetan datza ikerketa honen interesa, eta aurrerantzean lan honen emaitzei norbere lan eremuan etekina ateratzeko gaitasuna erakutsi beharko genuke.

## Bibliografía

- BERASALUZE, Ainhoa eta BERRIO-OTXOA, Kontxesi (2008): *Gizarte Langintzaren jardute profesionala gaur egun / El ejercicio profesional del Trabajo Social hoy*. Colegios Oficiales de Diplomados/as en Trabajo Social de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa. Vitoria-Gasteiz.
- ESTRUCH, J. eta GÜELL, A. M. (1976): Sociología de una profesión, los asistentes sociales. Península. Barcelona.
- FERNANDEZ, B. (koord.) (2003): Estudio sobre los/as trabajadores/as sociales que ejercen la profesión en Navarra. Colegio Oficial de Trabajadores/as Sociales y Asistentes Sociales de Navarra y la Universidad Pública de Navarra. [publikatugabea]
- COLEGIO OFICIAL DE DIPLOMADOS EN TRABAJO SOCIAL Y ASISTENTES SOCIALES DE LA RIOJA (2007): Situación laboral de las trabajadoras sociales en La Rioja: nuevos retos y propuestas de futuro. Logroño.
- BARBERO, J. M.; FEU, Montserrat eta VILBROD, Alain (2007): La identidad inquieta de los trabajadores sociales. Colegio Oficial de Diplomados en Trabajo Social y Asistentes Sociales de Cataluña. Barcelona.
- COLEGIO OFICIAL DE DIPLOMADOS EN TRABAJO SOCIAL Y ASISTENTES SOCIALES DE CATALUÑA (1997): Els diplomats en treball social i assistents socials de Catalunya: situació, perfil i expectatives. Hacer. Barcelona.
- LLOVET, J. J. eta USIETO, R. (1990): Los trabajadores sociales, de la crisis de identidad a la profesionalización. Editorial Popular. Madrid.
- FOMBUENA, J. (2007): "Trabajo social y género, un resumen de la investigación-Trabajo social: ideología, práctica profesional y sociedad.", en: Servicios Sociales y Política Social; 77, 83-92; Consejo General de Colegios Oficiales de Diplomados/as en Trabajo Social; Madrid.
- PEÑA, L. eta ARANGUREN, N. (2007): "La colegiación, una opción de autoayuda y responsabilidad profesional", en: Servicios Sociales y Política Social; 80, 11-17; Consejo General de Colegios Oficiales de Diplomados/as en Trabajo Social; Madrid.